



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/09/16

Brad Little Idahoko Gobernadoreak Gernikako Batzarretxea bisitatu dau

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak eta Unai Rementeria Bizkaiko Ahdun Nagusiak Brad Little Idahoko, euskal komunitate indartsua daukan eta bost urtez behin Boiseko Jaialdia, euskal diasporaren jaia, eta Euskaditik kanpo mundu osoan gure kulturagaz egiten dan hitzordu nagusia, ospatzen dauen Estatu Batuetako estaduko, Gobernadorea jaso dabe gaur. Bizkaiko Batzarrak ordeztuz bertan egon dira, baita be, Zigor Isuskiza (EH Bildu) eta Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia), Mahaiko bigarren lehendakariordea eta bigarren idazkaria, hurrenez hurren.

Little, Teresa Little emazteak, Estaduko Lehenengo Damak, lagunduta heldu da Batzarretxera. Eurekaz batera honeek etorri dira: Zach Hauge Kabinete burua; Tom Kealey, Merkataritza Departamentuko zuzendaria; Celia Gould Nekazaritza Departamentuko zuzendaria; Jake Reynolds Merkataritza Departamentuko Negozio Garapen arduraduna; Andrea Vlassis-Zahn Merkataritza Departamentuko Inbertsinoa erakarteko arduraduna; eta Gloria Totoricagüena, Idahon jaiotako kontsultorea eta euskal diasporaren ikerlaria.

Idahoko ordezkariak egin jakon agurra, txistulari bik interpretatu daben ondo etorriko “Agur Jaunak” kantuagaz hasi da. Txistulariek lagundu dabe musikagaz taldeak Batzarretxearen kanpoaldetik egin dauen ibilbidea. Bizkaiko eta bertako foruen historiaren ganeko bideo instituzionala ikusi ostean, Gernikako Arbola Zaharrera joan dira, eta bertan Iparragirrenen “Gernikako Arbola” ereserkia entzun da. Bisitak, Gernikako Arbolaren aurrean dantzatu dan ohorezko aureskuagaz eta Osokoen Aretora, Beirategiren Aretora eta Artxibategira-Liburutegira egin dan bisitagaz jarraitu dau.

Harrera ekitaldian egon dira, baita be, José María Gorroño Gernikako alkatea eta Mendatoko (Joseba Mallea) eta Ereñoko (Joseba Zarragoikoetxea) Udalburuak. Idahon bizi izan diran edo bertan bizi diran senideak dituen inguruko eskualdeetako biztanleek be ez dabe bisitea galdu gura izan. Gobernadorea eurekaz berbetan egon da.

Bisitea, Littlek Batzarretxeko Ohorezko Liburuan egin dauen sinadureagaz bukatu da. Bertan betiko itzi dau bere bisitaren aztarnea, hau idatzita: “Ohore handia da Teresarentzat eta niretzat lur honetan eta Eusko Jaurlaritzaren hastapenak dituan etxe honetan, Idahoko biztanle askorentzat sagradua dan lekuan, egotea”. Oroitzapen moduan, Batzar Nagusietako Lehendakariak, Gernikako Arbolaren hosto bat irudikatzen dauen brotze bat emon deutso Idahoko lehenengo damari, eta Gobernadoreari, 1609an margotu zan eta Osokoen Aretoren buru dan Francisco de Mendietaren “Esku-mosuak” margolanaren erreplika bat. Otadui azpimarratu dauen moduan, “Europa osoan egindako emakumeen lehenengo talde erretratua da”. Hori entzutean, Littlek azpimarratu dau Idaho dala emakumeek botoa emoteko eskubidea lortu eben Estatu Batuetako lehenengo estaduetako bat, 1896an, hain zuzen be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
16/09/2019

Brad Little, Gobernador de Idaho, visita la Casa de Juntas de Gernika

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y Unai Rementeria, Diputado General de Bizkaia, han recibido a Brad Little, Gobernador de Idaho, estado de EE UU que cuenta con una pujante comunidad vasca y que cada cinco años celebra el Jaialdi, el festival de la diáspora vasca y la cita con nuestra cultura más importante del mundo fuera de Euskadi. En representación de las Juntas de Bizkaia, han acudido también Zigor Isuskiza (EH Bildu) y Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia), vicepresidente segundo y secretario segundo de la Mesa, respectivamente.

Little ha llegado a la histórica sede de la Cámara foral acompañado por su esposa, Teresa Little, Primera Dama del Estado; Zach Hauge, Jefe de Gabinete; Tom Kealey, Director del Departamento de Comercio; Celia Gould, Directora del Departamento de Agricultura; Jake Reynolds, Responsable de Desarrollo de Negocio del Departamento de Comercio; Andrea Vlassis-Zahn, Responsable de atracción de inversión del Departamento de Comercio, y Gloria Totoricagüena, Consultora nacida en Idaho e investigadora de la diáspora vasca.

La recepción a la delegación de Idaho ha comenzado con el canto de bienvenida “Agur Jaunak”, interpretado por dos txistularis, quienes han acompañado con música el recorrido de la comitiva por el exterior de la Casa de Juntas. Tras el visionado de un vídeo institucional sobre la historia de Bizkaia y de sus fueros, se han dirigido hacia el Árbol Viejo de Gernika, donde ha sonado el himno de Iparragirre, “Gernikako Arbola”. La visita ha continuado con un aurreku de honor ante el Árbol de Gernika y la visita al Salón de Plenos, la Sala de la Vidriera y el Archivo-Biblioteca.

Han estado también en la recepción José María Gorroño, Alcalde de Gernika, y primeros ediles de municipios como Mendata (Joseba Mallea) y Ereño (Joseba Zarragoikoetxea). Tampoco se han querido perder el acto un grupo numeroso de familiares y vecinos y vecinas de las comarcas cercanas que han vivido en Idaho o que tienen familiares que residen allí y con quienes el Gobernador ha estado hablando.

La visita ha finalizado con la firma de Little en el Libro de Honor de la Casa de Juntas donde ha escrito: “Es un gran honor para Teresa y para mí estar en la tierra y en la casa de los principios del Gobierno Vasco, un lugar sagrado para muchos y muchas habitantes de Idaho”. Como recuerdo, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia ha entregado a la primera dama de Idaho un broche que reproduce una hoja del Árbol de Gernika y al Gobernador, una réplica de “El besamanos”, cuadro de Francisco de Mendieta pintado en 1609 que preside el Salón de Plenos. Como ha subrayado Otadui, es “el primer retrato colectivo de mujeres de toda Europa y un símbolo de la igualdad entre hombres y mujeres”. Al escuchar este dato, Little ha destacado que Idaho es uno de los primeros estados americanos donde las mujeres consiguieron el derecho a voto, concretamente, en 1896.